




Erbesteko gutunak Victor Hugori

Louise Michel

Ez nuen Louise Michelen figura ezagutzen, ez nekien nor zen, eta barkamena eskatzen dizuet nire ezjakintasunagatik, izan ere, pertsonaia unibertsala da eta imaginario kolektiboaren parte izan behar luke —eta da—. Zentzu horretan, nire seme Anderri eskertu beharrean nago nire urtebetetzeagatik liburu hau oparitu izana, horri esker hutsune kultural bat tapatzeko aukera izan baitut. Louise Michelen biografia ezagutu ondoren, ondo merezita dauka Mediterraneoan etorkinak erreskatatzen jarduten duten itsas salbamenduko ontzietako batek haren izena izatea.

Liburuak berez duen balio literarioa gutxienekoa da. Literaturaren ikuspegitik obra txikia dela esango nuke; aldiz, obra txikia ez dena egilearen biografia bera da; izan ere, Louise Michelek hortxe erdietsi du jende gutxik erdiesten duen maila humano, poetiko eta artistikoa.

Louise Michelen benetako obra artistikoa bere bizitza bera da: zer egin zuen, zer esan zuen, nola jokatu zuen, nor izan zen, zein zeregin bete zuen Parisko Komunari eta ondorengo herri-altxamenduan, garaiko pertsonaia garrantzitsuekin (Victor Hugorekin, besteak beste) nolako harremanak izan zituen, edota Kaledonia Berrira erbesteratua izan ondoren nola jarraitu zuen borrokatzen lurrik eta eskubiderik gabeko indigenen alde, haien konfiantza eta gertutasuna bereganatzeraino.

Kultura eta espresio poetikoa maite zituen borrokalari eta kulturgile nekaezina izan zen. Gizarte bidezkoago baten alde egin zuen ahalegin eskerga goi mailako idazle edo olerkaria izateko egin izan balu, lortu egingo zukeen, inongo zalantzarik gabe, baina orduan... ez zatekeen Louise Michel izango, inork ez ziokeen haren izena jarriko itsas salbamenduko itsasontzi bati, eta, ziurrenik, inork ez zukeen bera ikusiko bere garaiari aurrea hartu zion Cheguevara baten moduan, borroka sozialaren lehen lerroan beti.

Eta hori guztia haren maistra- eta kulturgile-bokazioa ahaztu gabe. Hezkuntzan sinesten zuen, baina eskola berri batekin egiten zuen amets; tratu txarrik gabeko, bazterkeriarik gabeko eskola bat zerabilen gogoan, planteamendu iraultzaile batean oinarritutako eskola berri bat¹. Azken finean, Louise Michelle horixe izan baitzen: emakume iraultzaile bat, burutik oinetaraino.

Agur eta ohore zuri, Louise Michel!!

¹ Noizko, gure herrian ere, "Louise Michel Ikastola", "Louise Michel Ikastetxea" edo "Louise Michel Eskola"...?